

Informazio

Agerkaria

215

2012ko
abendua
diciembre
2012

Boletín

Informativo

Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuen
Bazkun
Ohoretsua

Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya



NAVIDAD

2012

GABONAK





Disjurex



Su Librería Jurídica

SI ES JURÍDICO, ECONÓMICO, EMPRESA, Y OPOSICIONES, ¡ LO TENEMOS !

Su mayor librería jurídica en internet



Podrá consultar más de 35.000 obras, por títulos, materias, editoriales, autores y palabras clave.

ÚNICO TELÉFONO para todas las editoriales Jurídicas Españolas. 944 255 220 ó 902 540 992.

LIBRERÍA PRESENCIAL. Exposición y venta de las últimas novedades y fondo de referencia de las principales Editoriales Jurídicas, Economía y de Empresa.

LIBRERÍA VIRTUAL: www.disjurex.es. Según los datos del Consejo Vasco de La Abogacía, somos la página web más visitada y mejor valorada en el sector Jurídico. **Descuento 5 % en todas las obras.**

INFORMACIÓN BIBLIOGRÁFICA:

Envío periódico de correos electrónicos con la lista de las **NOVEDADES** relacionadas con las áreas de trabajo que nos solicitan. Actualmente enviamos a 103.000 clientes este valioso instrumento de información.

BOLETÍN DE ACTUALIDAD Y CONSEJOS: Realizado por expertos del sector de Consultoría de Despachos Profesionales, enviamos semanalmente un correo electrónico de recopilación de noticias y novedades legislativas, totalmente gratuito.

ASESORAMIENTO EN OBRAS JURÍDICAS: Nosotros no despachamos libros. Desde el año 1987 estamos visitando bufetes e instituciones, por lo que nos resulta muy fácil detectar sus necesidades.

Si desea asesoramiento sobre libros jurídicos, cuente con nosotros, estamos muy cerca de Usted

www.disjurex.es

Descuentos especiales para Estudiantes, Profesores, Práctica Jurídica y Asociación de Jóvenes Abogados

Distribuidor exclusivo de: Academia Vasca de Derecho y AD Concordiam

SÍGUENOS EN:



Librería Exposición y Venta

A 100m. del Palacio de Justicia Frente al Ilustre Colegio de Abogados de Bizkaia



Alameda Mazarredo, 15 Bajo
48001 - Bilbao - Vizcaya
Teléfono: 902 540 992 – 944 255 220
Fax: 902 540 993 – 944 245 811
E-mail: clientes@disjurex.es
Librería Virtual: www.disjurex.es

Horario comercial en librería de Lunes a Viernes de 9:30 AM a 20:00 PM, ininterrumpidamente.

Aurtengo urtea iazkoa baino zailagoa izan da egoera ekonomikoarengatik eta Estatuko eta autonomia-erkidegoko lege eta dekretu batzuk argitaratu eta indarrean jarri direlako eta horiek gure esparru juridikoa ez hain adeitsua, ez hain bizidun eta ez hain soziala bihurtu baitute eta zalantzarik gabe amestutakotik asko urrundu baituzte. Urte amaiera honetan, aldizkari honen taldeak eskerrak eman nahi dizkie laguntzaile, artikulugile, iragarkigile eta, batez ere, irakurle guztiei, interesa eta leialtasuna erakutsi diguzuelako. Datorren urtean ere informatzen ahaleginduko gara eta lankideek, epaileek, fiskalek, irakasleek eta doktoreek gurekin modu eskuzabalean elkarbanatzen dituzten gaurkotatuta, ezagutzak eta gogoetak biltzen. Horrez gain, kultura eta aisiarako plataforma eskaintzen ahaleginduko gara, zorrotasunez baina maitasunez.

Eta, batez ere, hemen egongo gara, zuen ondoan, gure lanbideari eta gure duintasunari kalte egiten dieten gertaera juridiko guztien injustizia eta bidegabekeria gelditzeko, aldatzeko eta salatuzko.

En el final de un año que ha resultado ser más difícil aún que el anterior, por la situación económica, por la publicación y entrada en vigor de leyes y decretos estatales y autonómicos que hacen de nuestro entorno jurídico un espacio mucho menos amable, menos justo y menos social cada vez y desde luego más lejano de quimeras inocentemente soñadas, el equipo de edición de EL BOLETÍN quiere agradecer a todos los colaboradores, articulistas, anunciantes y, sobre todo, lectores, vuestro interés y fidelidad y comunicaros que durante el próximo año, intentaremos en todo caso seguir informando, recogiendo la actualidad, los conocimientos y las reflexiones que desinteresadamente comparten con nosotros compañeros, jueces, fiscales, profesores y doctores tratando de ofrecer, así mismo, una plataforma de cultura y entretenimiento con rigor y el mayor de los afectos.

Y sobre todo estaremos aquí, a vuestro lado, para tratar de frenar, modificar, denunciar, la injusticia y la sinrazón de todos aquellos aspectos jurídicos que afecten y perjudiquen a nuestra profesión y nuestra dignidad.

FELIZ 2013 ZORIONTSUA

2013 zoriontsua opa dizuegu: Nazario DEKANOA, Javi IDAZKARIA, BATZORDEKIDE guztiak (Gemma, Ramón, Tatiana, Carlos, Susana, Luis Mari, Gontzal, Patricia, Salva, Nahia, Esteban, Mikel), Alberto, gure KUDEATZAILA, PJEko, Liburutegiko, Dekanatu, Arbitraia Epaitegiko, Administrazio, Atezaintzako eta Garbitasun zerbitzuko lankideak, ikastaro eta jardunaldietako hizlariak, BATZORDE ETA AZTERLAN TALDEETAKO partaideak –aurten aldizkariako artikulak idatzi dituzte eta–.

Urte berri on baita ere 2012. urtean zehar aldizkariako artikulak bidali dutenei, izan ere, doan egin dute lan hori eta testu bikainak eta erabat interesgarriak izan dira, nola Bazkuneko kideontzat, hala aldizkaria irakurtzen duten beste irakurleentzat.

Azkenik, zorionak aldizkariako lankideei: Cesar Gallastegi Aranzabal, Fran Garcia-Escárzaga, Eskubideak taldeko kideak, Jesus Soler Lorent, Sonia Prieto González, Julio Garcia Ramírez, Ramón Lasagabaster Tobalina, Jon Zapirain Bilbao, Gonzalo Apoita Gordo, Neftali Fuentes Calvo, Maitane Valdecantos Flores, Carlos Ais Conde, Aitzol Asla Uribe, ordezkoko epaile diren Irune Fernández Arias eta Cristina Balboa Dávila, eta Aner Uriarte Codon epailea. Horiek gure begirunea eta esker ona merezi dute. ESKERRIK ASKO, JAI ZORIONTSUAK IZAN ETA URTE BERRI ON!

Al DECANO Nazario, al SECRETARIO Javi, a todos los MIEMBROS DE LA JUNTA (Gemma, Ramón, Tatiana, Carlos, Susana, Luis Mari, Gontzal, Patricia, Salva, Nahia, Esteban, Mikel) a nuestro GERENTE Alberto, a los compañeros de La E.P.J, Biblioteca, Decanato, Tribunal Arbitral, Administración, Consejería, Limpieza, a los ponentes de cursos y jornadas y las COMISIONES y GRUPOS DE ESTUDIO que han colaborado a lo largo del 2012 con sus artículos

A todos los que han colaborado con la revista durante el 2012 enviándonos desinteresadamente artículos brillantes y de gran interés para los colegiados y para lectores de otros sectores que tienen acceso al Boletín.

A los COMPAÑEROS Cesar Gallastegi Aranzabal, Fran Garcia-Escárzaga, Miembros de Eskubideak, Jesus Soler Lorent, Sonia Prieto González, Julio Garcia Ramírez, Ramón Lasagabaster Tobalina, Jon Zapirain Bilbao, Gonzalo Apoita Gordo, Neftali Fuentes Calvo, Maitane Valdecantos Flores, Carlos Ais Conde, Aitzol Asla Uribe y las Jueces Sustitutas Irune Fernández Arias, Cristina Balboa Dávila y el Juez Aner Uriarte Codon Todos ellos son destinatarios de nuestra admiración y agradecimiento. GRACIAS, FELICES FIESTAS Y FELIZ 2013.



**Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuen
Bazkun
Ohoretsua**

**Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya**

Decano / Dekanoa
Nazario Oleaga Páramo

Consejo de Redacción / Erredakzio Batzordea
Ana Bermejo Arteagabeitia
Beatriz Barquín Torre
Ignacio Alonso de Errasti

Colaboradores / Laguntzaileak
César Gallastegi Aranzabal
Garazi Arraibi Larrea
Jorge Marqueta Andrés
Eduardo Ranedo Fernández
Idoia Manzarraga Zamalloa
Alberto Martínez Ruiz

Fotografía / Argazkigintza
E. Moreno Esquivel

<http://www.icasv-bilbao.com/>
elboletin@icasv-bilbao.com

Depósito Legal / Legezko gordailua
2.069/1987

Tú que puedes

Aprovéchate de la Mutualidad de la Abogacía



M^o del Prado Guzmán López
Mutualista desde 2002

Ignacio Peña Robledo
Mutualista desde 1997

Marta Isabel Uriarte
Mutualista desde 1987

José Manuel Cuerva
Mutualista desde 2008

Tú que puedes, benefíciate de todas las ventajas de ser mutualista:

Sin ánimo de lucro	Todos los beneficios para el mutualista¹
Gestión independiente de las inversiones	Persiguiendo siempre la máxima seguridad
Rentabilidad para tus ahorros	4,5% en 2012 + complemento a final de año²
Tus seguros de vida a menor coste	Gracias a nuestra especialización
Ventajas en servicios bancarios, seguros y otros	Con nuestro Club Privilegia
Disfruta de productos exclusivos para los abogados	De previsión complementaria y seguros personales
Gestión profesional	Compatible con la autogestión por los abogados
Costes reducidos	Estructura simple y distribución directa
Tecnología	Web interactiva para cualquier trámite o consulta
Transparencia	Información trimestral, y diaria en la web

Para más información entra en
www.mutualidadabogacia.com

escribe un e-mail a
buzon@mutualidadabogacia.com

o llama al Servicio de Atención al Mutualista
902 25 50 50

1. Los resultados de la Mutualidad reierten directamente en los propios mutualistas excepto el excedente que se debe destinar a reforzar la solvencia de la entidad.
Rentabilidad a cuenta, a la que se adiciona el complemento para alcanzar la rentabilidad total del 2012. La rentabilidad histórica del Plan Universal para los mutualistas ha sido del 5,50% anual promedio desde su creación. Rentabilidades pasadas no garantizan rentabilidades futuras.

2012ko abendua
diciembre 2012

06

BERRIAK

09

INFORMAZIOA

“Europa gehiago egiten” laguntzen ari ote gara honela?

11

GABONETAKO BITXIKERIAK

12

TRIBULACIONES CONCURSALES

14

JARDUNALDIAK

Euskadiko Foru Eskubide Zibilar buruzko XI. jardunaldi praktikoa

18

BAZKUNEKO LIBURUTEGIA

20


LEGEGINTZA BERRITASUNAK

22

KULTUR ERANSKINA



10



25



MAGIA GALA

Ekitaldian magia egingo da, eta bertaratuere parte hartuko dute, kasu honetan haurrek eta helduek. Magiak musika izango du lagun.

Magia ikuskizuna oso ona da ikusle guztientzat eta batez ere haurrentzat. Izan ere, kultura da, pentsamendu kritikoa pizten du eta guztien sormena garatzen du, magiaren arteak duen erronka intelektualari esker.

Era berean, azpimarratu behar da haurrek amarru batzuk ikasiko dituztela lagunei erakusteko eta, beraz, interes handiagoa izango dute ikuskizunean. Gauzak agertu, desagertu, animaliak... egongo dira, baina batez ere, entretenimendua eta dibertsioa.



NOIZ?

Osteguna, 2012ko abenduaren 27a. 18.30.

NON?

Bizkaiko Abokatuen Bazkuneko Auditorioa

ZENBAT DENBORA?

2 ordu gutxi gorabehera

Sarrera doan.

Leku mugatua.

2012 GABONETAKO KONTZERTUA

BIZKAIKO LEGELARIEN ABESBATZA

Abenduaren 27an, 19,00etan
SAN BIZENTE ELIZA

Zuzendaria: Karmele Barrena

Ia-ia 19 urteko ibilbidean, Abokatuen Bazkuneko Abesbatzak kontzertu ugari eman ditu Euskal Herrian eta beste hiri askotan, hala nola Madrilan, Bartzelonan, Vigon, Granadan, Zaragozan, Valentzian, Santanderren, Sizilian, Parisen, Bruselan, Buenos Airesen, Bordelen, Caracasen eta Dublinen.

Horrez gain, Abesbatzak Bazkuneko bitzitan eta erakundearen ekitaldietan modu aktiboan parte hartu du, besteak beste urte judiziala irekitzean, hildakoen mezetan, sari-banaketetan, nazioko eta nazioar-

teko kongresuak zabaldu eta ixtean, etab. Abesbatza gure Bazkunaren enbaxadore eta ordezkari duina da -eta hala izaten jarraitu nahi du- han eta hemen. Bizkaiko abokatuek maila handia dutela erakusten ahalegintzen da, ez bakarrik lanbide-eginkizunean, baita aisia- eta kultura-jardueretan ere.

Urteroko hitzorduari erantzunez, Bizkaia Jaureriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuko Abesbatzak -Bizkaiko Legelarien Abesbatzak- Gabonetako ohiko kontzertua egingo du. Kontzertua zuon gustukoa izatea espero dugu, eta kontzertuarekin batera, datorren urterako desirarik onenak opatzen dizkizuegu.



RUIZ-GALLARDÓNEK IRAGARRI DUENEZ, GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMAK ETA TRATU TXARRAK JASATEN DITUZTEN UMEAK DOAKO JUSTIZIAREN ONURADUNAK IZANGO DIRA

Zerbitzu hau eskatzen dutenak tasak ordaintzetik salbuetsita egongo dira

Alberto Ruiz-Gallardón Justizia ministroak Diputatuen Kongresuan iragarri duenez, genero-indarkeriaren biktimak eta tratu txarrak jasaten dituzten umeak doako justiziaren onuradunak izango dira. Abokatua eta prokuradorea kosturik gabe izateaz gain, edozein tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira.

Pertsona horien aurka egindako delituak arlo penalari dagozkio, eta hain zuzen ere, urtero epaitegietara iristen diren gaien %72 arlo horretakoak dira. Tasei buruzko Legean ez dago aurreikusita arlo penalean tasarik ordaindu behar izatea, eta zenbait salbuespen ditu prozesu zibiletan: gaitasun, seme-alabatasun eta adingabetasun prozesuak, seme-alaba adingabeen gaineko jagoletza eta zaintza prozesuak eta elikagaiei buruzkoak.



Justizia Ministerioa prestatzen ari den Doako Justiziaren Aurreproiektua burugabekeria galanta da, izan ere, berehalako batean egindako testua da, azterketa eta hausnarketerik egin gabe, populismoak jota dago, eta ondorio larriak ekar ditzake herritarrentzako eta operatzaile juridikoentzako.

OFIZIOKO TXANDAKO ETA ATXILOTUARI LAGUNTZEKO TXANDAKO LEGELARIEN BILTZARRA

Joan den azaroaren 22an, gure Batzordeak ofizioko txandako eta atxilotuei laguntzeko txandak lankide guztiei deitu zien biltzar bat egiteko.

Biltzarraren xedea zen gure kolektiboa Eusko Jaurilaritzak onetsitako Doako Justiziaren Dekretu berria onestearen aurka dagoela agerian uzteko jarduera-ildoak ezartzea.

Aurreko egunetan, Batzordeko kideak barruti judizial desberdinetako lankideekin bildu ziren gure iritzia jakiteko eta aipatu dekretua onesteak ekarri dizkigun ondorio praktikoen aurrean, asko eta askotarikoak izanda, ditugun ideiak jakiteko.

Batzarrera jende asko bertaratu zen, gu guztion egonezinenaren seinale, eta gure eskaera legitimo guztiak kontuan hartzeko eta konpontzeko beharrezko neurri guztiak hartu behar direla agerian geratu zen.

Beraz, gure Batzarrak zenbait alternatiba proposatu zituen eta bertaratuak guztiak eztabaidatu eta kontuan hartu zituzten, eztabaida parte-hartzailean. Lankideek alternatiba gehiago proposatu zituzten eta hartu beharrezko neurri zehatzak bozkatzea erabaki zen.

Proposamenak hiru izan ziren: atxilotuari laguntzeko txandan guztiok modu kolektiboan bajaran ematea, data jakin batetik aurrera guardiak ez txandakatzea, eta Orientazio Juridikorako Zerbitzua (OJZ) egun batzuetan ixtea, protesta egiteko.

Azkenean, 2013ko urtarrilaren 15etik aurrera guardiak (atxilotuei laguntzea eta erruztatuen aitopenak) ez txandakatzea onetsi zen aho batez. Era berean, Orientazio Juridikorako Zerbitzua (OJZ) abendua- ren 19, 20 eta 21ean ixtea adostu zen.

Neurri horrek oihartzun handia izan du tokiko komunikabideetan. Horrek erakusten digu ofizioko txandan egiten dugun lana oso garrantzitsua dela eta lan hori baldintza duinetan garatzea oso garrantzitsua dela.

OJZ-REN GOMENDIOAK DOAKO JUSTIZIAREN DEKRETUA BEHAR DEN MODUAN APLIKATZEKO

Orientazio Juridikoaren Zerbitzuko (OJZ) lankideek Doako Justiziari buruzko dekretu berria indarrean sartzean izango dituzten arazo zehatzak, egiten ditugun akatsak eta horiek konpontzeko modua kontatu dizkigute.

LEHENENGO ETA BEHIN, azpimarratu egiten dute BAZKUNAK UZTAILEAN DEKRETUA ETA JARDUTEKO MODUA AZALTZEKO JASO ZUEN ZIRKULARRA IRAKURRI EGIN BEHAR DELA. Testua Aldizkariaren 212. zenbakian eta Bazkunaren web orrian jasota dago.

Bigarren, azter ditzagun arazo praktikoa:

II. ERANSKINA

AUTOIZENDATZE PARTEA aurkezten dugunean aurkezten da, hau da, gaiaren gaineko ardurua izango dugula dakigunean, EZ ARINAGO.

II. eranskina bete behar duten gaietan (guztietan trafikoaren segurtasunaren aurkako delituetan, etxeko indarkerian, maulan eta adingabeen kasuan izan ezik), EZ da beharrezkoa justiziapekoari eskatzea Doako Justizia eska dezala.

III. ERANSKINA

Trafikoaren segurtasunaren aurkako delituetan, etxeko indarkerian, maulan eta adingabeen kasuetan bete behar da, eta ezinbestekoa da. Bestela, Bazkunak ez dakin or den izendatutako legelaria eta epaitegiari ezin dio jakinarazi desenkusarik egon den.

Lankideek esan digute **EZINBESTEKOKA DELA DATU GUZTIAK BETETZEA**, bestela OJZk, erabili behar duen sistema informatikoaren eraginez, ez daki nor den izendatutako legelaria eta ezin dio desenkusa jakinarazi dagoen epaitegiari edo adingabeen fiskaltzari.

Exhortoei lotutako gaiak artatzen direnean, III. Eranskina sinatzeko eskatu behar da horrela jokatzeko bidezkoa denean, baina ez da aurkeztu behar argi izan arte gai hori exhorto dela-eta jardun duen legelariak eraman- go duen.

Adingabeei dagokienez III. Eranskina bete behar da beti. Aldundiak hartutako adingabeak badira, OJZn FORU AGINDUA, lehen adierazpena fiskaltzan eta ARTXIBO PENALAREN EREDUA aurkeztu behar dira (Bazkuneko web orrian dago, inprimakien atalean).

Adingabeen aurkako indarkeria kasuetan ere aurkeztu behar da, BI gurasoen aurka interes kontrajarriak badaude

DESENKUSA

Jardunaren ostean jarraian aurkeztu behar da eta kopia bazkunera eraman behar da.

II. Eranskinari dagozkion gaietan DESENKU-

SAK aurkeztu dira OKERTUTA. Gai horietan, Doako Justizia emanda dago eta, beraz, ez da bezeroak doako justizia ematea eskatzearen edo ez eskatzearen araberakoa.

Desenkusa III. ERANSKINAK LAGUNDU BEHAR DITUEN GAJETARAKO DA (trafikoaren segurtasunaren aurkako delituak, etxeko indarkeria, maula eta adingabeak)

Desenkusa aurkeztu arren, azkenean bezeroak Doako Justiziaren izapideak egin eta ematen bazaio, hasieran desenkusa jaso duen legelari bera izendatuko da.

LEGELARIAK ASKATASUNEZ IZENDATZEA

Dekretuaren arabera, justiziapekoek legelaria hautatzeko aukera dute. Horretarako, nahitaezkoa da OJZra joatea Doako Justizia eskatzera eta OHARTARAZI behar dute abokatu jakin batek defendatzea nahi dutela. Jurisdikzio zibilean, lan arlokoan eta administrazioarekiko auzi-jurisdikzioan hautatu daiteke.

Hau da askatasunez izendatzeko prozedura:

- Doako Justiziaren kasuan kasuko espedienteak irekiko da.
- Justiziapekoari dei egiten zaio dokumentazioa ekar dezan. Aspaldi hitzordua astebete geroagorako ematen zen; gaur egun, krisiaren eta dekretuaren zailtasunaren eraginez, ilara luzeak daude eta justiziapekoari hilabete 1 geroagorako ematen zaio hitzordua.
- Justiziapekoa OJZk emandako hitzordua ez badoa edo beste paper batzuk ekartzen ez baditu, gutxienez hilabete eta erdi igaro behar da OJZk abokatuei jakinarazteko bezeroek Doako Justiziaren izapideak egin dituzten edo ez. Horrena urretik, espedienteak ireki den edo ez soilik esan ahal digute, baina hori ez da ezeren bermea.
- Behin betiko informazioa eman dezakeen bakarria Doako Justiziaren Batzordea da. Horrek ematen du behin betiko ebazpena.

Amaitzeko, jakinarazi nahi dizuegu OJZ gainezka dagoela, zuetako askok Barroeta Aldamar kaleko epaitegietan ikusi ahal duzuen moduan. Batzuetan telefonoa ere ezin dute hartu.

Baliabide material gehiago eskatu dituzte (jendea behar den moduan artatzeko bulegoak eta legelari gehiago), baina mementoz ez diete ezer eman.

OJZk barkamena eskatu nahi du batzuetan behra bezala artatu ez bagaituzte. Hala ere, argi utzi behar dugu dagokiena baino gehiago lan egiten ari direla eta beti gure esanetara egongo direla.

DEMOKRAZIARAKO EPAILEAK ELKARTEAREN KOMUNIKATUA AUZIALDIAN JURISDIKZIO EGINKIZUNETAKO INTERFERENTZIAREN AURKA

Oraintsu, prentsan lankide batzuen ibilbideari kalte egitera bideratutako informazioak ikusi ditugu. Hain zuzen ere, lankide horiek ustelkeria kasu garrantzitsuen ikerketen buru izan dira.

Besteak beste, Kanarietan “kasu eoliko” izenekoaren auzialdian zein Katalunian “Palau kasua” izenekoaren inguruan, komunikabide batzuek informazio batzuk hedatu dituzte eta horiek ez dute zerikusirik kasu horien ardura duten magistratuek egindako lanarekin. Informazio horien xede bakar eta eskusiboa epailearen irudiari kalte egitea da, epailearen zintzotasuna eta laneko osotasunari eraso eginez, gertaeren manipulazio baldarraren bidez.

Jokabide horrek epailea desaktibatu nahi du, bere erabakiak boterean dauden batzuentzat deserosoak edo pertsona jakin batzuen hauteskunde-interesen aurkakoak izan daitezke eta. Baina horrela jokaturik zuzenbideko estatutaren oinarritzko zutabeetako bati zuzenean eraso egiten zaio, epaileen independentziari hain zuzen. Batzuek ez dute inolako errespeturik agertzen, eta gertaeren errealitatea ezkutatu eta nahi duten bezala itxuragabetz, gehien komeni zaien istorioa albiste bihurtzen dute.

Ezin da ahaztu modu honetan jokatu dutenen azken asmoa botere egitura batzuen narriadura agerian utzi duten ustelkeria kasuen instrukzioa kutsatzea dela edo emaitzak modu politikoan erabiltzea, gertaerak alde batera utzita, justiziarekin zerikusirik ez duten xedeetarako.

Hori dela eta, Demokraziarako Epaileak elkarteak mota honetako ikerketen ardura duten lankide guztiei babesa erakutsi nahi die, eta haiek pairatzen duten manipulazio informatiboa erabat baztertu eta kondenatzen duela adierazi nahi du. Hain zuzen ere, mota horretako jokabideak desegokiak dira balio demokratikoak oinarri dituen herrialde honetan, hain zuzen ere, egiazko informazioa hedatzea gure gizartea garatzeko funtsezko osagaia baita.

Era berean, berriro ere adierazten dugu herrialde honetako epaileek konpromisoa dugula herritarren zerbitzura lan egiten jarraitzeko, jokabide-ildo bakarrak legezotasun printzipioa eta gure esku jarritako xedeak betetzea izanda. Inola ere ez diegu erantzungo kanpoko presioei eta uneoro argi izango dugu gure eginkizuna ondo gauzatzea oso garrantzitsua eta pisu handikoa dela.

GURE BAZKUNEKO “PEDRO IBARRECHE” PRAKTIKA JURIDIKOKO ESKOLAKO PRAKTIKETAKO LEGELARIEK BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK BISITATU DITUZTE

“Pedro Ibarreche” Praktika Juridikoko Eskolako legelariak eta arduradunak, joan den azaroaren 14an, Bizkaiko Batzar Nagusien egoitza administratiboa bisitatu zuten, Bizkaiko Abokatuen Bazkuneko zentro honek ikasleei lurraldeko erakunde publikoak ezagutarazteko antolatzen dituen ekimenen barruan. Ana Madariaga Batzar Nagusietako lehendakariak zentroko ikasleei eta Aitzol Asla eta Jon Larrea arduradunei harrera egin zien, eta gonbita egin zien trebakuntza-programan ekintza zehatz bat gehitzeko, etorkizuneko abokatuek Bizkaiko Legebiltzarren mekanismo funtzionala eta eskumen nagusiak ezagutu ditzaten, eta horretarako Gernikan egingo den osoko bilkura batera bisita egitea proposatu zien.

Lehendakariaren harreraren ostean, Bizkaiko etorkizuneko abokatuak duela bi hamarkadatik baino gehiagotik trebatzen dituen Bazkuneko Eskolako 27 legelariak foru areto nagusiak bisitatu zituzten. Bisitariak Batzarretako taldeetako bozeramaile batzuekin hitz egin zuten, eta ibilbide pedagogikoa amaitzeko, hitzaldi-solasaldia izan zuten areto nagusian, Batzar Nagusietako legelarien eskutik.

Giro lasaian, Bizkaiko ganberako legelariak, José Luis Aurtentxek eta Javier Madariagak, erakunde honek herrialdeko bilbe politikoan duen eginkizun garrantzitsua azaldu zieten haien “kideei”. Bertaratuek hainbat galdera egin zituzten, eta Batzarretako arduradunak azaldu zieten ganberan foru arauak onesten direla, Bizkaiko aurrekontuak onesten direla, Bizkaiko Ahalduen Nagusia hautatzen dela eta Bizkaiko Foru Aldundiko gobernuaren kontrola egiten dela, besteak beste.

“Pedro Ibarreche” Praktika Juridikoko Eskolaren jardueraren bidez, abokatutzaren munduan sartzen diren gazteei gehiengo bermeak eman nahi zaizkie mota honetako lanbideak dituen erronkei aurre egiteko. Eskola erreferentea da, eta praktika juridikorako zentro ospetsuenetakoa nazioan eta Europan. Aurrerantzean, Eskolaren plangintzaren barruan, trebakuntza zehatza eta hurbila gehituko da euskal erakundeei buruz, eta hasteko Bizkaiko Legebiltzarri helduko zaio. Hala egiten dute beste erakunde batzuekin, hala nola Konstituzio Auzitegia, Auzitegi Gorena, Fiskaltza eta Diputatuen Kongresuarekin.



MODU HORRETAN “EUROPA GEHIAGO EGITEN” LAGUNTZEN ARI GARA?

MERCEDES AGUADO - *Madrilgo Abokatuen Bazkun Ohoretsuko abokatu*

Dokumentu publikoak Europan aitortzeari eta horien zirkulazio askeari buruzko eztabaidak gure goi-auzitegiaren erantzuna izan du oraintsu. Hau da kasu eztabaidagarria: Espainiar kokatuta dagoen higiezinaren salerosketa kontratu bat, notarioak atzerrian formalizatu duena, zuzenean inskribatu daiteke Espainiako Jabetza Erregistroan?

Azken urteetan Erregistroen eta Notario-tzaren Zuzendaritza Nagusiak ahaleginak egin ditu sarbide horren aurkako argudioak aurkezteko, guztia Espainiako notarioek bermatzen duten segurtasun juridikoen mesedetan; segurtasun hori arriskuan egon daiteke berme horiek ez dituzten notarioen dokumentuak onartuz gero.

Hala ere, Auzitegi Gorenak (arlo zibileko sala), 2012ko ekainaren 19ko 998/2011 epaiaren bidez (RJ/2012/8008), dokumentu hauek Espainiako Jabetza Erregistroan inskribatu ahal izatearen alde agertu zen. Zein da erabaki honen oinarrian dagoen printzipioa? Horren oinarrian dagoena da “zerbitzuak modu askean ematea Europar Batasunaren esparruan” (Itunaren 56-60. artikulua), eta hortik ondorioztatzen da “Espainiako notario batek esku hartzeko beharrak esan nahiko luke ondasunak eskualdatzeko askatasunari muga ezartzen zaiola, ondoreen osotasunari dagokionez, eta hori ez dago justifikatuta Europako Erkidegoko eta Espainiako antolamenduen gaur egungo egoera kontuan hartuta”.

Nola ez, Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko arauen barruan mugitzen ari gara. Horregatik, hau da egin behar den galdera: kasu honetan, arau horiek hautsi dira? Magistratuek eskutik garrantzitsu kontrol horren inguruan egiten duten ibilbidean. Modu horretan, haien ustez, printzipio eztabaidaezina da “ondasun higiezinaren edukitza, jabetza eta horien gainerako eskubideak, eta publizitatea, haiek dauden lekuko legeak arautuko ditu” (Kode Zibilaren 10.1 artikulua), baina formari dagokionez, argi geratzen da dokumentua zein herrialdetan egiletsi eta bertako legeak arautuko duela (Kode Zibilaren 11. art. eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren ekainaren 17ko 593/2008 EE Erregelamendua). Beraz, kontraesana izango litzateke dokumentu baten eraginkortasun juridikoa ukatzea “formazko” betekizun batzuk bete ez direlako, horiek dokumentua egiletsi den herrialdeko legeriaren arabera errespetatu badira. Era berean, AGren ustez, argudio hori baieztatzen du Kode Zibilaren 1462. artikulua; izan ere, artikulua horretan ondoreak ez dira mugatzen salerosketako eskritura publikoa Espainiako notarioaren aurrean egilesten den kasuetara. Eztabaidaezina bada Alemaniako notario baten aurrean egiletsi-

tako salerosketa eskritura bat –Alemaniako zuzenbidearen formaltasunei jarraituz- eta Espainiako notario baten aurrean egiletsitako salerosketa eskritura bat –gure antolamendu juridikoaren formaltasunak kontuan hartuta- berdin-berdin baliozkoak badira, zergatik egin beharko genuke salerosketa horren eskritura berriro ere Espainian? Bi dokumentua kezka dirala baliokideak fede publikoaren funtzioari dagokionez, forma identitatea beharrezkoa izan gabe? AGk, amaitzeko, adierazi du atzerrian egiletsitako higiezinaren salerosketako notario-dokumentuen inskripzioa eta gero Jabetza Erregistroan inskribatzea ez dela gure Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko arauak urratzea. Nire ustez, aipatu epaian boto partikularra eman duten magistratuek diotenez, mementoz kontua ez da “konbergentzia handiagoa lortzea Europar Batasuneko estatu kideetan nagusi diren jabetza eskuratzeko sistemen artean, elkarren artean horren desberdinak izanda”. Herrialde bakoitzak bere tradizio adu, batez ere aspaldiko negozio juridiko honetan, hots, higiezinaren salerosketan, eta nire ustez, hau ez da unea tradizio hori bertan behera uzteko. Azaldu dugunez, kontua ez da Alemaniako, Holandako edo Belgikako notarioak bere antolamendu juridikoa aplikatzea Espainiar kokatutako higiezinaren eskualdatzean; horren ordez, fede eman beharko du eskualdaketa hori Espainiako zuzenbidearen arauen arabera egin dela, eta, hori bai, dokumentu publikoak hori egilesten den lekuko dokumentu publikoaren forma izango du, baina “forma bakarrik”.

Bestalde, ulergarriak dira ebatzi berri den kasazio-errekurtsuak estatuko abokatuak azalduko eragozpenak, hala nola, notarioen informatzeko betebeharra, higiezinaren titulartasunaren kontrola, kargak, etab., gainerako administrazio publikoarekin lankidetzan aritzea betebeharrak betetzen direla bermatzeko, besteak beste: zergak ordaintzea, kapitalak zuritzearen eta iruzurraren aurkako borroka, etab. Baina, argudio horien aurrean, ez da iradokizun sortzaileak egiten hasteko unea?

Adibide moduan: iruzurraren aurkako borroka ez da indartuko Europako profesionalen arteko elkarrekiko lankidetzaren eta harmonizazioaren bidez? Ez litzateke eraginkorragoa eta komenigarriagoa izango guztiok, funtzionario publikoak eta eragile pribatuak, lankidetzan arituko bagina ondasun higiezinak eskualdatzeko beharrezko izapideak, betekizunak, etab. sinplifikatzeko, segurtasun juridikoari kalterik egin gabe? Nire ustez, aberasgarriagoa eta produktiboagoa izango litzateke gure energia guztiak erabiltzea, muga guztiak gaindituz, legea betetzeko segurtasun juridikoa eta bermeak ematen dituzten neurriak asmatu, ezarri eta aplikatzen.

Europar Batasuneko hainbat estatutako auzitegiek emandako epaiak aitortu eta gauzatzea Europan benetako merkatu bakarra sortzeko egindako bilakaeraren beste adibide bat da. Jurisdikzio esparruan hori horrela bada, zergatik ez dugu pentsatzen notario-dokumentuen zirkulazio askeak bide bera egingo duela? Dokumentu horiek Jabetza Erregistroan inskribatu ahal izateari uko egitea azken atea ixtea izango litzateke, leihogu guztiak ireki ondoren. Espainiako notarioen eginkizuna aitortu, miretsi eta eskertu egiten dut, nire ustez haien ekarpena oso baliagarria da legezkotasuna, trafikiko juridikoaren segurtasuna eta eragiketen benetakotasuna bermatzeko. Hori dela eta, ez litzaidake gustatuko nire iritzia eta iradokizunak esangura negatiboa interpretatzea; baina nire galdera hau da: ez da unea iritsi “Europa gehiago” sortzeko kontzientziak bultzatuta notarioak mugitzeko eta Europako kideekin bat egiteko gure mugez harago koordinatu, harmonizatu, bateratu eta legezkotasuna zaintzeko? Ziur nago, horrek merkatuko kuota galtzea baino trafikiko juridiko eta merkataritzakoaren hazkundera ekarriko duela. Azaldu dugunez, prozesu horrek “legezkotasuna kontrolatzeko” neurriak izan beharko ditu, lege-iruzurra, ihes fiskala eta hirugarrenak engainatzea saihesteko. Ezin dugu ahaztu prozesu hau unibertsitateetan hasten dela. Guztiok harro gaude gure gazteak Europako unibertsitateetara ikastera joaten direlako Erasmus, Sócrates, eta beste programa batzuekin. Lorpen bikaina da titulu profesionalak Europar Batasunaz kanpoko herrialdeetan aitortu ahal izatea, eta nola ez, Europako edozein herrialdetan lanean aritzea ohore handia dela pentsatzen dugu. Orduan, saihestezina dirudi, nola edo hala, notarioen jardura mugak desagertzeko prozesu horretan murgilduta egotea. Hala ere, eztabaida hasi baino ez denez egin, azken galdera bat irekita utziko dut: zer gertatuko da higiezin baten titulartasuna transmititzeko gainerako moduekin: dohaintza, oinordetza, trukea, ezkontzaren ondasun-erantza, etab.? Epaiak horren inguruan ez dio ezer, horretara behartuta ere ez dago, baina salerosketako notario-dokumentuen tratamendu bera izango dute? Beraz, beharrezkoa da notarioak mugitzea, Europako kideekin irizpideak eta jarduteko moduak bateratzea eta, horrela, apurka-apurka, merkatu bakar hau sortzea. Merkatu horrek, zailtasunak gorabehera, gauza on asko emango dizkigu Batasuneko herritar guztioi. Zuzenbidea bizirik dago eta unean uneko beharrianetara egokituta bilakatzen da. Merezki du prozesu horren protagonista izatea, etorkizuneko arriskuengatik atsekabetzea baino, aurretik saihestu egin ahal izan baditugu.

GABONETAKO BITXIKERIAK



Gabonak munduko txoko guztietan ospatzen dira, modu batera edo bestera. Tradizioak, sinesmenak, koloreak, janariak... guztia aldatu egiten da leku batetik bestera.

Gure inguruan, Gabonetan, kaleak koloreetako argiekin alaitzen dira, plazetan produktu tipikoak saltzen dituzten azokak ipintzen dira, familiak bildu egiten dira Gabon gauean (abenduak 24) oilar-mezaren gaueko hamabietan, Gabon egunean (abenduak 25) eta abenduaren 31n, ur-teari agur esateko.

Bazkari tipikoak egiten dira, hala nola arkumea, aza, indioilarra, intxaurrek, turroiak eta mazapanak, eta mahaiak Pazkoako loreekin, kandlekin... apaintzen dira.

Urteko azken egunean telebisten aurrean jartzen gara hamabi mahats hartuta, eta mahatsak kanpai-hotsekin batera jaten ditugu. Ohitura hori merkataritza-arrazoari huts bategatik sortu zen, Alacanteko mahastizainek urteko uzta on-on bateko mahats-gaundikina kanporatzeko beharra ikusi baitzuten. Ohitura horrek gaur egunera arte jarraitu du.

Etxeak gabon-kantekin, jaiotzekin, Gabonetako zuhaitzekin... apaintzen dira.

Baina... Nola bizi dituzte Gabonak munduko beste herrialde batzuetan?

Alemanian, adibidez, Gabon gaueko afariaren hurrengo egunean, haurrek opariei itxaroten diete egonezin handiz. Kanpaitxo bat entzuten denean (egongelako atearen atzean egoten da), haurrak korrika ateratzen dira, zuhaitzaren azpian haien opariak daudela dakitelako, baina... ezin izango dituzte ireki "Stille Nacht, heilige Nacht" gabonkanta tradizionala abestu arte.

Belgikan, Gabon eguneko bazkari tipikoaren ostean, patinatzerara ateratzen dira. Familia osoak patinak janzen ditu eta ibai izoztuetan ibiltzen dira. San Nikolasek hiriko haurrak abenduaren 4an bisitatzen ditu onak izan diren ikusteko, eta bi egun geroago, itzuli egiten da ondo portatu direnei gozokiak eta opariak uzteko, eta bihurrienei zapatan adartxo bat ipintzen die.

Finlandiarrek Gabonetako zuhaitzaren adarretatik hainbat herrialdeetako banderatoak zintzilikatzen dituzte, herrien eta kulturen arteko senidetzearen ikur moduan. Tradizio zahar bat daukate: "pikkujoulu" edo "Gabon txikia". Gabon gauaren aurreko egunetan, lanaldiaren ostean etxera joaten dira Gabonetako apaindurak egitera.

Frantzian Gabonak abenduaren 6an hasten dira, San Niko-

lasek umeei opariak ekartzen dizkienean. Gabonetako giroa azaroaren 25etik nabaritzen da, Sainte Catherine egunetik. Abenduko egutegia oso zabaldua dago, eta egun bakoitzean leiho bat zabaldu behar da.

Irlandar gehienak katolikoak dira. Horregatik, herrialdeko Gabonetako ohituretan erlijio horrek eragin handia du. Irlandan, Gabonetako apainduretako tradiziozko bitxiak kandelak dira. Etxearen sarreran edo leihoren batean kandela zuri handi bat ipintzen da. Kandela hori etxeko txikiak pizten du Gabon gau egunean. Sinbolo horren bidez, Familia Sakratuari ongi-etorria ematen zaio, eta Maria izeneko neskatu edo emakume batek soilik itzali dezake.

Italian, urteko azken gauean, "Notte di Capodanno", ohikoa da dilistak jatea diskotekara joan orduko. Gau honetan, emakumeei barruko arropa gorriak oparitzen zaizkie, hurrengo urtean zortea izan dezaten. Erroman eta Napolin, gaueko hamabietan, traste zaharrak bota egiten dituzte, urte berria ondo hasteko.

"Opari bat, poema bat". Horixe da **Letoniako** Gabonetako leloa. Letoniako ohituraren arabera, Gabon gauean, afariaren ostean, zuhaitzaren ondoan Gabonetako opariak bilatu behar dira, baina inork ezin du bere oparia hartu poema txiki bat esaten ez badu. Beste ohitura bat zurezko enborrak biltzea eta urte amaieran horiekin sua piztea da, urte berriaren aurretik zoritxar eta arazo guztiak amaitzeko.

Polonian, jaiotza tradizionalan txotxongiloak egoten dira, eta hori kasu bakarra da munduan. Jaiotzan agertoki txiki bat egoten da txotxongiloentzat. Kristoren jaiotzaren pasarte klasikoak eta historiko satiriko eta kostunbristak antzestu ohi dira. Gabon gauean, familia osoa afaltzeko biltzen da, eta mahai guztietan plater bat baino gehiago jartzen da, eta olata orri bat; mahaikoek adiskidetzearen sinbolo moduan zatitzen dute olata hori.

Erresuma Batuan, Gabonak ez lirateke Gabon izango mihurarik ez balego. Deabruetatik babesten du eta etxeetara zortea ekartzen du. Britainia Handian Gabonak ez lirateke Gabon izango "crackers" izenekoak ez baleude, hau da, erditik zatitzean eztanda egiten duten petardoak. Horien barruan, txapeltxo bat, opari bat eta txiste bat egoten da.

Suitzan Gabonetako ospakizunetan egoten diren alkohol-gehiagikeriengatik, "Sudur Gorri" izeneko elkarte bat agertu da. Elkarte horretakoek itxuraz apur bat edanda dauden gidariak zaintzen dituzte eta etxera haiek eramateko proposamena egiten diete.

Abenduaren 6an San Nikolas eguna da. Schmuzli lagun-

tzailea izaten du alboan, eta alemanez “barrutik irri egiten duena” esan nahi du. Biek haur guztiak bisitatzen dituzte eta koadernoan egiaztatzen dute ea ondo portatu diren. Horrela bada, poltsa batzuetan, datilak, intxaurrak, mandarinak, pikuak eta txokolatea uzten dizkiete.

Tradizio **juduak** ez ditu Gabonak ospatzen, baina abenduan, Gabonekin bat etorri, “Jánuka” ospakizun judua dute. Horretan, haurrek opariak jasotzen dituzte familiarengandik. Ospakizun hori familian egiten da, esparru pribatuan, edo eskola erlijioso juduetan.

Beste hemisferioko herrialdeetan, hala nola **Australian**, Gabonak udan ospatzen dira. Hori dela eta, elurrak eta hotzak inguratutako Gabonetako giro klasiko eta ezaguna herrialde horretan aldatu egiten da, eta hondartzak eta udako Santa Klaus aurkitzen ditugu.

Filipinetan, espainiar kolonia izan zenez herritarren gehiengoak tradizio katolikoa baitu, Gabonak hemengo antzera ospatzen dira, oilar-mezarekin, lur haietako antzinako biztanleek zituzten beste ohitura batzuekin eta Europa zaharretik iritsi zitzaizkien beste batzuekin.

Buztinezko lanparek **Indiako** etxeetako paretak estaltzen dituzte, Diwali jai hinduan egiten den bezala. Gainera, Pazkoako loreek eliza asko apaintzen dituzten oilar-mezan.

Babushka tradizioa **Errusiakoa** da. Kondairen arabera, haurren artean opariak banatzen dituen Gabonetako irudia da. Izan ere, hotza zela-eta ez zen Jesus ikustera joan gainerako jakitunekin.

Herrialde bakoitzak ohitura batzuk ditu, leku bakoitzak bere tradizioa du, baina guztiek, modu batera edo bestera, Gabonak ospatzen dituzte.

